

Euskararen normalizazioa eta erabilera epaitegietan: **ekimenak eta emaitzak**

Euskarak justizia arloan duen indarra momentuz ez da oso handia eta oraindik ere, prozesu eta tramitazio gehienak gaztelaniaz egiten dira.

Hala ere, euskarari bultzada bat emateko Euskara Batzordea dugu, hau izanik epaitegietan gure hizkuntza sartzeko ahaleginak koordinatzen dituen erakundea. Lan honen bitartez azalduko dudana hauxe izango da:

Batzorde hau zer den eta zein honen zeregina zein den, euskararen alde orain arte egindako lana, EpaiNET plataforma zer den eta zertan datzan eta Batzorde hau zertan ari den gaur egun euskararen normalizazioa eta erabilpena epaitegietan bultzatzeko.

Euskara Batzordea

Batzordearen egitekoa

Euskara Batzordea 1996.urtean eratu zen Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren ekimenez epaitegietako agiriak euskaraz normalizatzeko, epaitegietako datu baseetan zeuden gaztelaniazko agiri judizialen idazkera adosteko eta normalizatzeko helburuarekin.

Batzorde horretan, hasieratik, Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasleak, EHUko Zuzenbide Fakultatekoak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkariak, epaile euskaldunak, abokatu euskaldunak, Justizia Saileko euskara teknikari eta itzultzaileak eta UZEI (Terminologia eta Lexikografia Zentroa) bildu ziren. 1997.urtean,

UZEIk hartu zuen agiri judizialak itzultzeko ardura; agiriak zentro honek itzultzen ditu, aipatutako erakundeetako ordezkariari bidaltzen dizkie berrikusteko, eta bilerak egiten dira, batzordekide bakoitzak euskaraz euskarazko testuaren gainean dituen oharrak azaltzeko eta, denon artean, agirietako terminologia eta idazkera adosteko.

Batzorde honen egitekoa, oro har, jurisdikzioka gaztelera normalizatzen diren agiri judizialak euskaraz normalizatzea da.

Batzordearen egitura

Batzordea kide hauek osatzen dute:

- Epaille euskaldun bat
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat
- Bizkaiko Abokatuen Elkargoko kide bat
- Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko kide bat
- Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko kide bat
- Unean-unean zeregin horretarako kontratatuta dagoen itzulpen-enpresako bi ordezkari
- Justizia Administrazioako itzultzaile-interpretari bat.
- Justizia Sailburuordetzako hizkuntza normalkuntza teknikariak
- Batzordearen koordinatzailea (hizkuntza normalkuntza teknikarietako bat)

Orain arteko ibilbidea

Gaur egun, euskara juridikoaren egoera asko hobetu da Hego Euskal Herrian. Euskara juridikoa lantzen diharduten erakundeei esker, zuzenbideko euskal terminologiaren normalizazioan aurrerapauso handiak egin dira eta itzulpengintza juridikoa asko sendotu da. Batetik, lege-testu ugari euskaratu dira, eta, horrela, hizkera juridikoaren bizkarrezur den lege-hizkera mamitzen ari da euskaraz, IVAP-HAEEren, Deustuko Unibertsitatearen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik. Bestetik, unibertsitateek zuzenbideko ikasgai gehienek eskuliburuak euskaratuta dauzkate. Eta, horrez gain, hainbat erakunde elkarlanean aritu dira, azken urteetan, zuzenbideko zenbait arlotako hiztegi eta lexikoak lantzen.

Lan horiek guztiak oinarri sendoa dira, bai terminologia aldetik eta bai adierazpide aldetik ere, epaitegietako agiriak itzultzean sortzen zaizkigun arazoei aurre egiteko. Legeetan landutako terminologia, bereziki, oso kontuan hartzen dugu, lege-testuak edozein testu juridikoren zutoin direlako, eta, horrez gain, normalizazioari begira, oso garrantzitsua delako lantzen ditugun agiri judizialetako terminologia eta legeetakoa bat etortzea.

Testuinguru horretan, Batzordeak lanean dihardu benetako normalizazio bat lortzeko. Egun dituen arazo gehienak ez daude terminologiarekin lotuta, testuen idazkerarekin baizik. Kide guztien artean, euskarazko agiri judizialen idazkera-estiloa finkatzen saiatzen dira, eta, ahal dutenean, itzultzen baino gehiago, gaztelaniazko ereduak euskarara egokitzen ahalegintzen dira: *“ereduak euskaraz sortzen ariko bagina bezala idazten saiatzen gara, gaztelaniazko anbiguotasunak gaindituz baina, segurtasun juridikoa bermatzeko, gaztelaniaz adierazitako mezu osoa zehatz-mehatz islatuz”*.

Lan hori burutzeko, zuzenbidean adituak diren batzordekideen laguntza eta kolaborazioa zein hizkuntzalari eta itzultzaile diren batzordekideena ezinbestekoa da, eta baita UZEIko lankideen laguntza.

Esan daiteke zortzi urte hauetan Justizia Saileko Euskara Batzordean landu den euskal testugintza juridikoan urrats handiak egin direla: bai terminologia-normalizazioari dagokionez, bai testuen kalitateari dagokionez eta bai lanaren errentagarritasunari dagokionez ere.

Lan sistema

Batzordearen lan funtzionamendua pausu hauetan laburbildu daiteke:

- 1) Jurisdikzioka pixkanaka maizen erabiltzen diren agiri judizialak aukeratu ondoren euskaratzera bidaltzen zaizkio zeregin horretarako eta deialdi publikoaren ondorioz hitzarmena egin zaion itzulpen-enpresari.
- 2) Agiri horiek itzulita daudenean, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzatik batzordekide bakoitzari bidaltzen zaizkio, lehenengo bertsio horren gainean oharra egin ditzaten, epe jakin batean.
- 3) Ohar horiek aipatutako enpresak bateratu eta batzordekideei bidaltzen zaizkie, denon oharra bertan dituztela, bilera aurretik berriz begiratzeko. Ondoren, hiru bat astero edo, bilera egiten da agiri horiek behin betikotzat jotzeko eta epaitegietako sistema informatikoan txertatzen dira.

Esan behar da ez direla behin betikotzat jotzen edukiaren eta hizkuntzaren aldetik egon litezkeen zalantza guztiak argitzen diren arte.

Orain arte egindakoa

Euskararen erabilerak gora egin du eta hori frogatzen dute azken urte hauetan egindako ikerketek. 2002-2003. urteetan adibidez, “Bulego judizialetan euskara erabiltzeko Esperientzia Pilotuak” aurrera eramane ziren. Hauen helburu nagusia organo judizialetan euskararen erabilera bermatzea eta bultzatzea zen. 32 organo eta 114 pertsonak hartu zuten parte, horiek guztiak Bizkaikoak eta Gipuzkoak. Hurrengo hauek dira denek adostu zituzten jardun konpromisoak:

-Idatzizko komunikazioa: lehentasunezko agirien itzulpena eta diseinu elebiduna, eta agiri elebidun horiek bake-epaitegietan erabiltzeko aplikazio bat sortzea.

-Ahozko komunikazioa: herritarrari berak aukeratutako hizkuntzan arreta emateko eta telefonoz erantzuteko langileek hartutako konpromisoa.

-Hizkuntza-paisaia: organo parte-hartzaileen errotuluen berrikusketa eta zuzenketa.

-Baliabide informatikoak: atal zehatz bat sortzea informazioarako (Esperientzia Pilotuak) eta laguntzarako (hizkuntza-zalantzak, beste orrietara bidaltzen duten estekak...).

Esperientzia honen osteko balorazioa positiboa izan zen, agiri elebidunen erabilera hazi egin baitzen baina oraindik ere, gaztelerazko agiriena handiagoa zen.

Bestetik, 2004 eta 2005. urteetan, ikerketa eta konparaketa gehiago egin ziren. Oro har, ikusi zen dokumentu elebidunen erabilerak gora egin zuela EAE osoan urte hauetan, bai Arabako, Bizkaiko zein Gipuzkoako barrutik judizialetan. Txosten hauek gainera emaitza gehiago eman erakutsi zituzten, horien artean hurrengo hauek.

Dokumentu estandarizatuak (automatikoki ateratzen direnak) ele bietan jartzean bete bete asmatu zela esan daiteke. EAEko Lehen Auzialdiko, Instrukzioko eta Erregistro Zibileko organo guztiek agiri elebidun automatikoak emititzen dituzte. Honekin lortu dena hau da:

- Herritar zein Justizia Administrazioako langileek hizkuntza eskubideak, neurri batean bederen, errespetatzen direla ikusteko aukera izatea.
- Arrunta eta egunerokoa izan dadila agiri elebidunak emititzea eta sinatzea.
- Lorpenei begira gutxieneko batzuk ezartzen dira. Dokumentu horien bertsio elebidunak emititzen jarraituko da.

Aditzera eman zen ere beharrezkoa litzatekeela Intranet eta Interneteko baliabideak sustatzea eta eguneratzea.

Internet/Intranet/Extraneteko orriak diseinatu zirenean, langile gehienek ez zeukaten ez PCrik ezta sarerako sarbiderik ere, baina gaur egun epaitegi arrunt guztietan eta Bake Epaitegi gehienetan badute sarerako sarbide hori.

Esperientzia Pilotuak neurri batean hiru Lurralde Historikoetara zabaldu zirela ikusita, agian euskaren erabileraren sustapena EAEko organo guztietara zabaltzeko aukera jorratu beharko litzateke, arlo hauetan behintzat:

-Ahozko komunikazioak: informazio bulegoak, euskarazko demanda eta salaketa bilketa.

-Idatzizko komunikazioak: euskarazko testu askeko eremuetan jarduteko trebakuntza.

Honekin batera helburu batzuk zehaztu ziren ahozko komunikazioan. Esparru hau organo ezberdinetan jorrazteko jarduerak burutu ziren, “Lehen hitza euskaraz” kanpaina eginez edo “Justizian euskaraz ere bai” lelodun plakak jarritz.

Esperientzia Pilotu mailako taldeetan jardutetik, hizkuntz normalizazioa EAE osora hedatu ahal izatera pasatu zen 2004-2005. urteetan eta Giza baliabide berrien lanari esker, batetik, eta EpaiNET bake-epaitegietako aplikazioari dagokionez informatika alorrean eman diren hobekuntzez baliatuta, bestetik, lorpen handiak eman dira organo arruntetako zein Bake Epaitegietako dokumentu elebidunen diseinu eta emisioan.

Azken eguneratzea 2006. urtekoa da eta honetan dokumentu elebidunen erabilera adierazten da probintziak. Oro har esan daiteke urte honetan gora egin zuela euskararen erabilerak probintzia guztien barruti judizialetan. Deigarria da ere 2006an

Tolosako eta Gernikako epaitegietan itzulpen automatikoaren sistemari hasiera eman zitzaioa.

EpaiNET

EpaiNET, bake-epaitegietan 2002an hasi zen lan baten emaitza da. Urte honetan, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak euskararen erabilera bultzatzeko esperientziak jarri zituen martxan epaitegi arruntetan, eta baita bake-epaitegietan ere.

Hasieran, 8 bake-epaitegik hartu zuten parte esperientzia hauetan:

- **Gipuzkoan:** Azkoitia, Ibarra elkartea, Lazkaoko elkartea eta Legazpi
- **Bizkaian:** Lekeitio, Ondarroa, Igorreko elkartea eta Zamudioko elkartea

Hala ere, arazo dezente topatu zituzten:

1. Zeregin berbererako, dokumentu ezberdinak erabiltzen ziren hainbat bake-epaitegitan.
2. Hainbat eredu (ez denak) eguneratu egin behar ziren, zaharkituak baitzeuden. Beste batzuk, berriz, oso ondo zeuden.
3. Lana gestionatzeko era ezberdinak zeuden. Batzuk bere aplikazio txikia sortu zuten, beste batzuk *word*-a erabiltzen zuten soilik.
4. Barne-sakabanaketa: Ibarra eta Igorreko elkarrekin, esaterako, bake-epaitegi askok osatzen dute, eta zaila zen dokumentu guztiak leku guztietan edukitzea.
5. Bake-epaitegi ezberdinen arteko harremana oso eskasa zen.
6. Langileek maiz aldatzen dute lanpostuz, eta bake-epaitegi bakoitzean era ezberdinean funtzionatzeak, nahasmena sortzen zuen.
7. Lanean bertan, langileek behin eta berriz errepikatu behar zituzten datuak (ezkontza espedienteko izen-abizenak, esaterako)...denbora galduz.

Beraz, arazo guzti hauek zirela eta, euskararen erabilera oso urria zen. Horrexegatik, EpaiNET izeneko aplikazioa sortu zen, bake-epaitegiko langileen eskarmentua eta aholkuei jarraituz, goian adierazten diren arazoei aurre egiteko.

Gaur egun egiten den lana

Itzulpen automatikoa da orain bultzatzen ari den teknika berrietako bat eta horretan dihardu lanean Euskara Batzordeak langileen lana errazteko helburuarekin. Mota ezberdinetako dokumentuak daude, eta aldi berean zailtasun-maila ezberdinak, ez baita berdina zitazio-zedula bat egitea edo auto bat egitea. Era honetan, hiru dira dokumentu elebidunak emititzeko moduak:

1) Era automatikoa

EAEko epaitegi guztietan automatikoki elebidun ateratzen diren dokumentuak dira (itzulpen automatikorako programarik gabe). Dokumentu hauek langile guztiek elebidun aterako dituzte, ez baitago beste aukerarik. Euskaraz jakin ala ez, elebidun aterako dute, hain zuzen ere, sartu beharreko datuak (zenbakiak, izen-abizenak...), hizkuntza guztietarako balio dutelako.

2) Langileak bi aldiz datuak sartuz

Dokumentu gehienetan, langileak berak aukeratu behar du dokumentu elebiduna, alegia, langileak egiten duen aukeraketa bat da (ez aurreneko puntuan bezala, elebidun egiteko aukera bakarrekoa).

Beraz, langileak, horrelako dokumentu bat aukeratuz gero, bi aldiz sartu behar ditu datuak, eta noski, askotan hainbat datu betetzea ez da erraza izaten eta gainera bi aldiz sartu behar ditu datu horiek. Esaterako, langileak hau idatziko balu: “*Copia de demanda del Fiscal, copia de auto admitiendo demanda y cédula de citación*”, gero hori euskaraz berriro idatzi beharko du.

3) Itzulpen automatikoaren bitartez

Aurreko bi sistema hauek saihesteko, hainbat epaitegitan (Tolosa, Gernika, Bergara, Eibar, Azpeitia, Durango....) itzulpen automatikorako programak instalatu dira. Programa horien helburua, goiko dokumentu elebidun horiek egiteko laguntza bat ematea da.

Esaterako, goiko adibidearekin jarraituz, automatikoki itzuliko lioke esaldia, eta itzulpena (“*Fiskalaren demandaren kopia, demanda onartzen duen autoaren kopia eta zitazio zedula*”) testuaren leku egokian ezarri.

Gaur egun, Tolosa eta Gernikako epaitegietan, lehen esan bezala (organo pilotuak), aipatutako programa horien bitartez elebidun soilik ateratzen diren dokumentuak daude. Baina helburu nagusia ekimen horiek EAEko epaitegi guztietara zabaltzea da.

Beste alde batetik, barruti judizialeetan dauden Euskara taldeei aipamena egin behar zaie. EAEko barruti judizial bakoitzak berea dauka eta hauei Barrutiko Batzordeak deitzen

zaie. Hauen lana euskararen erabilera areagotzea jarduerak prestatzea da. Batzorde hauen kideak epaitegietako langileak dira eta euren parte-hartzea guztiz borondatezkoa da. Hilean behin elkartzen ohi dira.

Esan bezala, euskararen ahozko zein idatzizko erabilera epaitegian areagotzea da helburua, euskaraz aritzeko herritarren eskubidea bermatzea eta idatzizko dokumentazioa elebitan erabiltzea.

2007-2009 urteetan zehar egindako jarduera deigarrienak hauexek dira:

- Errotulu finkoetan beharrezko zuzenketak egin ziren eta paperezko errotuluak bi hizkuntzatan jarri ziren.
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko mahai-egutegiak banatu ziren eta epaitegietan monolito edo figurak jarri ziren herritarrei sinbolo hori duten langileek euskaraz dakitela informatzeko.
- Trebatze eta formazio saioak antolatu zituzten talde hauek, hala nola, interneteko euskarazko baliabideen ezagupena izateko ikastaroak.
- Epaitegi guztietan euskararen txokoa (tabloiak) ezarri zuten, bertan agenda, berriak, euskal prentsa, deialdiak eta abar zintzilikatzeko.
- Talde hauek identifikatzen duen logotipoa egin zuten.

Amaitzeko, azpimarratu beharko lirateke ere barrutietan antolatzen diren aurrez aurreko saioak. Euskara saioak 2007ko irailetik aurrera hasi ziren ematen EAE osoan baina hasiera batean soilik barruti batzuetan egiten ziren. Hauetan ahozko eta idatzizkoa lantzen dira, ordubetez astean. Ahozkoetan erabilerarako jauzia egitea da helburu garrantzitsuena, eta lanpostuan gerta daitezkeen egoeretan moldatzeko trebatzea. Idatzizkoetan ordea, laneko gaiak eta terminologia lantzen dira batez ere, euskarazko tramitazioan trebatzeko asmoz.

Ondorioak

Aztertutako puntuei so eginez, esan daiteke esfortzu handia egiten ari dela justizia administrazioan euskararen presentzia indartzeko eta emaitzak oso positiboak izaten ari direla. Bai Euskara Batzordeak eta bai barruti bakoitzak duen Euskara taldeak etengabe lana eta dedikazioa burutzen ari dira hau lortzeko, hainbat inizatiba eta jardueren bitartez. Nire ustean, Euskara Batzordeak, topatu izan dudana informazioaren arabera, legeriaz eta hizkuntzaz arduratzen da batez ere, hau da, euskara juridiko on eta normalizatu bat lortzeaz.

Banakako euskara taldeek, aldiz, justizia administrazioari begira herritarren hizkuntza eskubideari eta euskararen erabilera bultzatzeari arreta handiagoa ematen diote. Hau da, esparru ezberdinetan lan egiten dute baina aldi berean elkar beharrezkoak izanik, bien lana eta ekimena ezinbestekoa baita, bai botere publikoak euskararen gainean arreta handiagoa jar dezaten eta bai herritarren artean euskararen erabilpena eta ikasketa sustatzeko.

Gero eta gehiago dira euskararen aldeko ekimen hauetan parte hartzen duten justizia administrazioako langileak eta baita euskara epaitegietan erabiltzen duten pertsonak ere. Justizia.net web orrian, ekimen hauen data zehatzak, grafikoak eta emaitzak ikusi daitezke, euskararen erabilpenak gora nola egin duen ikusteko. Oraindik ere, lan handia egin behar da, baina pixkanaka-pixkanaka, gero eta gehiago dira gure hizkuntzaren babesean eta erabileran egunero murgiltzen direnak.



Bibliografia

- www.justizia.net

Zehazki: “Euskararen Txokoa”:

www.justizia.net/Normalizacion/default.asp?Idioma=eu

Euskara Batzordea

Orain arte egindakoa

EpaiNET

Zertan ari gara